

KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PROTOKOLOA COVID19 **GAIXOTASUNAREN AURREAN**

Gomendio hauek finkatzeko Arizmendi K.Eko kideok honako erakunde hauek sustatutako protokolo espezifikoak hartu ditugu kontuan: Espainiako Futbol Federazioa, Liga, Espainiako Osasun Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Euskal eta Gipuzkoako Futbol Federazioa.

GOMENDIO OROKORRAK

- Higiene eta babes pertsonaleko neurriak ahalik eta gehien indartuko dira.
- Kirolariek etxean hartuko dute gorputzaren tenperatura, eta entrenamendu saiora ez da inor bere tenperatura 37°C baino handiagoa bada.
- COVID-19 sintomatologia duten kirolariak identifikatuko dira kirol jardueratik aparte gera daitezten.
- Aldagelak ezin dira erabilgarri. Entrenamendu saioetan parte hartuko duten jokalaria eta prestatzaileek etxetik kirol jantziak jarrita etorri beharko dute. Jokalari zein teknikari bakoitzak entrenamendu gunean gauza pertsonalak (motxila, ur botila, kaleko oinetakoak...) uzteko gune mugatu bat definitua izango du (beti berdina erabili beharko duena), non gune batetik bestera 2m-ko segurtasun tarte zurratuko den.
 - a. Pertsona guztiak instalazioetara maskara jantzita etorriko dira.
 - b. Teknikariek musukoa jarrita izango dute saio guztian zehar
 - c. Jokalariak maskara kendu ahal izango dute zeregin fisikoak egiten dituzten bitartean.
 - d. Entrenamenduan erabiliko dituzten oinetakoak entrenamendu gunean jantziko dituzte. Ezingo dute kaleko zapatekin zelaigunera sartu.
- Eskuen higiena sustatuko da. Horretarako, gel hidroalkoholikoa parte-hartzaileen eskura jarriko du instalazioen sarreran, entrenamendu bakoitzaren aurretik eta saio amaitu ostean jokalaria eta teknikoak erabiltzeko.
- Kirol instalazioetan, noranzko bakarreko sarrera eta irteera zirkulazio ibilbideak errespetatuko dira, sarrera eta irteerak modu ordenatuan egin daitezten.
- Lan saioak talde bakarrekoak izango dira. Lan saioen iraupena 45 minututakoa izango da eta entrenamenduen artean gutxienez 15 minutuko tarte izango da kirolari eta teknikariek instalazioak uzteko.
- Entrenamenduetan ez da ikuslerik onartuko.

- Kirol material komunitarioaren arduraduna talde teknikoa izango da. Hau da, kirol materiala gordetzen den gunerako sarbidea talde teknikoak soilik izango du.
 - a. Saio amaieran, erabili den material komunitario guztia behar bezala desinfektatu beharko da. Honen arduradun talde teknikoa izango da.
- Elementu osagarri guztiek norberaren erabilerakoak izan behar dute (eskuoihalak, botak, botilatxoak, poltsak, koltxonetak, ikurrak..). Debehatuta egongo da norberaren erabilerako materiala beste jokalariekin partekatzea.
- Ahozko komunikaziorako zein ariketak egiteko segurtasun-distantzia 2 metro ingurukoa izango da uneoro.
- Protokolo hau unean uneko gomendio eta arauetara egokitzeaz arduratuko da. Aldaketaren bat martxan jarri aurretik agintarien oniritzia jasotzeaz ziurtatuko da.
- Lan saioa bukatu eta gero, jokalaria, entrenatzaile eta laguntzaileek instalazioak berehalakoan utzi beharko dituzte . Ezingo da inor bertan gelditu edozein jolas edo ariketa egiten.
- Talde bakoitzeko Talde Teknikoa izango da aurreko puntu guztiak berme osoz betetzearen arduradun.
 - a. Aurreko puntu guztiak berme osoz betetzeko zailtasunak ikusiz gero, saioa bukatutzat emango da.
- COVID-19 -aren aurkako lan taldea Urtzi eta Gorkak osatuko dute, eta jokalaria zein teknikariren bat positibo edo posible-positibo izanez gero, informazio honen komunikazio fluxua definitu du:

- a. Kasuan kasuko informazioa osasun agintariei helarazi eta berauen gomendio eta jarraibideak sailera komunikatzeaz arduratuko da.
- b. Protokoloan aldaketaren bat ematen bada taldeko teknikariei helarazteaz arduratuko da.
- c. Talde Teknikoa: Entrenamenduetan protokolo honek biltzen dituen puntu guztiak berme osoz betetzen direla ziurtatuko da. Positibo edo posible positiboen berri Koordinatzaileari ahalik eta azkarren komunikatzeko betebeharra izango du.